

Urriaren 14tik aurrera eta datorren urteko maiatzaren 29 arte, Zabalegi nekazaritza eskolak negutegietako baratze gintza eta loragintza (jardineritza ere) aztertuko dituen ikastaro bat egingo du. Ikasketa hauen helburua Euskal Herrian alor hau bertako produktioarekin osatzea, gaur

Negutegiak

egun kanpokoak nagusi diren bitartean. Iharduera honen arrakasta orohar negutegietan erabiltzen diren teknikak ezagutu eta aurrera eramatean datza eta asmo horrekin eskaini da ikastaroa. Konpetitibo izan nahi bada besteen parean edo gainetik izan behar da, abantaila guztiez baliatuz.



Nekazal bide berriak ikasgai Zabalegin

I. LETURIA / DONOSTIA

Aurtengoa negutegien gaiari buruz egingo den bederatzigarren ikastaroa izango da Zabalegi nekazaritza eskolaren 30 urteko historia luzean. Badira Euskal Herrian beste eskola batzuk, hala nola Gipuzkoan Fraisorokoa, Bizkaian Deriokoa eta Araban berriz Arkautekoa, baina hauek Hezkuntza Profesionala edo ikasketa erregulatuen bidetik badoaz Zabalegi ikastaroenetik doa Jaime Zubia bertako zuzendarian azaldu zuen bezala.


Beste batzuen artean negutegien ikastaroak baldintzak jarri ditu parte hartu nahi dutenentzat: batetik heimezortzi urtetik gorako adina izatea, oinarritzko heziketa agiria eta ikastaroaren ondoren praktikak aurrera eramateko lur zati bat edukitzea ere kontutan hartuko da. Baserri ingurukoak izango dira gehienak (industriatik datozenak ere badira) eta izan ere ikastaroaren egitasmoetako bat nekazaritza-baserri munduari irtenbide berri eta egokia ematea da, aurrekoak alde batera utzi gabe.

INBERTSIO ETA EMAITZAK Zabalegiren eskaintza zera da, diru sarrera polita lor daitekeela lur sail txikiak erabiliz, lanpostu bakoitzeko inbertsioa txikiagoa dela eta astialdi eta asteburuak hobe antolatzeak aukera ematen duela negutegietako iharduerak. Faktore ugari hauek dira Jaime Zubiaeren esanetan negutegietako barazkigintza eta loragintza erakargarri egiten dutena.

Ehun egunetako ikastaro honetan ikasketa teoriko eta praktikak landuko dira, azkenak bereziki. Ikasleek kopurua 25ekoa izango da, bakoitza bi monitoreren gidaritzapean. Ikastaroa bi epetan dago zatitua. Lehenengoan, urriaren 14tik abenduaren 20ra arte. Ikasleak Zabalegin ikasiko dituzten gaiaren oinarritzko edukia eta bigarrean astebete Zaba-



Negutegietan urte guztian lan egiten da eguraldia txarra izan arren.



CARLOS VILLAGRAN

✓ Lur sail txikiak erabiliz, lanpostu bakoitzeko inbertsioa murriztu eta astialdia hobe antolatzeak aukera ematen du negutegietako iharduerak.

egin eta bestea etxean igaroko du bertan ikasitakoa praktikara eramateko.

Ikastaroaren ondoren ere etengabe aurreratzen ari diren negutegiei buruzko ezagutza zabaltzeko hitzaldiak egongo dira Zabalegin Gipuzkoako barazkigintza elkartearekin batera (GILBE), etengabe prestatzeko.

Ikastaroa aurretik nekazal arloan ari zirenei eta bide errentagarriagoak aurkitu nahi dituztenei zuzendua dago. Negutegien sektorea zabalkuntza garaian dago eta Gipuzkoan iharduera honetan erabiltzen den lur saila 40 hektareatakoa da, duela hamar urteko azaleraren bikoitza. Jadanik 200 familiek negutegietako barazkigintza dute bizibide.

Merkatua: 127 kiloko erronka

Negutegietako barazkigintza eta loragintzari buruzko Zabalegiko ikastaroak alor honetan Euskal Herriaren eskaerari bertako produktuekin erantzun bat proposatzen du. «Merkatua atzerriko produktuekin hornitua dago. Euskal Herrian biztanleko 150 kilo barazki kontsumitzen bada, Gipuzkoako produkzioak bertako biztanleko 23 kilo besterik ez du ekoizten (127 kiloko desberdintasuna kanpoko produkzioaz orekatua) eta hortaz hori da aurre egin behar diogun erronka», azaldu zuen Jaime Zubia Zabalegiko zuzendariak.

Horrez gain, barazkigintzaren merkatua hedatuz doa eta euskal negutegietako produktuan bereizgarrietako bat freskotasuna eta kalitatea dira, merkatuan finkatu eta bere tokia hartzeko garantiak.



«Kalitatea eta gertutasuna kanpoko hornidurari Euskal Herriko merkatuan aurre egiteko abantailak dira», nabarmendu zuen Zubia. Merkatua konpetitiboak izateko prezioa zeinbesteko faktorea den arren aipatu abantailak garrantzitsuak dira etorkizunean egutegien garapena lortzeko, jendea ez baita axola kalitatea ordaintzea Zabalegiko zuzendariaren ustez.

Baina kalitatea lortu, areagotu eta mantentzeko ezin da ahaztu gaian beharrezko den ezagutza, bai produkzio teknika zein komertzializazio bideetan. Zabalegiko ikastaroak beharrian hau betetzeko helburua dute. Ekoizpen eta komertzializazio sistemak, kontuak eta gestioa, ezagutza tekniko eta planifikazioa oinarritzko gaiak dira ikastaroen programan ondorioz.